

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Alkateordeen izendapena. Alkate-udalburuaren 2023ko ekainaren 20ko 1102 zenbakiko Dekretua aldatzea

Alkate-udalburuak 2024ko ekainaren 19ko 0987 dekretuaren bidez ebatzi zuen Alkateordeak izendatzea.

Ikusirik apirilaren 2ko Toki Erregimenaren Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legeko 23,3. artikulua eta Udalaren Antolamendurako Araudiko (UAA) 36.1. artikulua azalduta dakartela Tokiko Gobernu Batzordeko kideen artean alkate-udalburuak bere ordezkotza egiteko alkateordeak izendatu eta kargutik kenduko dituela askatasun osoz.

Udal honetako alkateordeak izendatzen dituen 2023ko ekainaren 20ko 1102 Dekretuaren edukia kontuan hartuta.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 21. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, alkate-udalburuak hau

EBATZI DU

LEHENA. Alkateordeak izendatzen dituen 2023ko ekainaren 20ko 1102 Dekretua aldatzea eta, ondorioz, honako hau izendatzea:

- Lehen alkateordea: Nagore Gomara Picaza.

Alkateordeek alkatetza hau ordezkotzeko dute beren eginkizun guztietan, izendapenaren hurrenkeraren arabera, baldin eta alkatetzarik ez badago, gaixorik badago edo ezinduta badago eta, ondorioz, alkateordeak ezin baditu bere eskumenak bete, eta alkatetza-kargua hutsik geratzen bada, alkate berriak kargua hartu arte beteko ditu alkatetza-eginkizunak.

Oro har, ordezkapen hori dekretu bidez egingo da, eta dekretu hori UAAREN 36.1 artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da. Aurrekoa gorabehera, ebazpen hori ez da beharrezkoa izango ordezkapena unean-unean, justifikatuta eta Alkatetzak Idazkaritza Nagusiari berariaz adierazita dagoenean.

Aurrekoaz gain, alkatea 24 orduz baino gehiagoz udalerritik kanpo geratzen bada, eskuordetza eman gabe, edo ustekabeko arrazoiren batengatik hura ematea ezinezkoa gertatu bazaio, dagokion alkateordeak ordezkotzeko du bere eginkizun guztietan, eta gainerako udalbatzari emango dio horren berri.

BIGARRENA. Indar gabetzea alde aurretiko izendapenak eta dekretu honen edukiarekiko aurkaritzan legokeen ebazpen oro.

HIRUGARRENA. Dekretu honek 2024ko ekainaren 20tik aurrera izango ditu ondorioak, egun hori barne.

LAUGARRENA. Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, MEOREN 36.1 artikuluan eta AJAREN 46. artikuluan xedatutakoa betez.

BOSTGARRENA. Erabaki hau interesdunei, udaleko talde politikoetako bozeramaileei eta udal arloei jakinaraztea, hurrengo ohiko Plenoan berri emenez.

Laudio, 2024ko ekainaren 20a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ